

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 168. alea - 2012ko azaroa

**Guztiok
gogoan,
errepika
ez dadin**



FOLESTZI MARKIEGI
1907-1987
EUSKALDAREN
OHINEZ
DEBA 2012-10-15



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



ABEL

Kristaldegia

Mota guztietako kristalak
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behea • 20820 DEBA
943 029 186



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa

zugandik zugana



Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazaatik




BURU - ZURI

Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



Foruen Plaza

Tel.: 943 191 035
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Calbeton



JATETXEA

Agustín Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:
Zuhatza Euskara Elkartea
Erredakzio taldea:

Goizane Aizpurua,
Mikel Aizpurua,
Koldo Aperribai,
Izaro Aulestiarte,
Nagore Dorransoro,
Lukax Dorransoro,
Xabier Laka,
Migel M.Lekube (Lutxo)
Ina Oiartzabal eta
Eider Zulaika

Azaleko irudia:
Erredakzio taldea

Publizitatea:
Joseba Escudero eta
Juan Mari Gurrutxaga
Tlfnoa.: 943 19 13 83
943 19 26 94

Logotipoaren diseinua:
Iñaki Elosua

Banaketa arduraduna:
Juanma Oiartzabal

Inprimategia:
Euskalinpri

Tirada:
1.400 ale

Lege gordailua:
SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTU-NAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



KOLABORAZIOA.
Mattin Urbietta, "Txiki eta handi". **05.**

KRONIKA. Polentzi Markiegi fusilatu zuteneko 75. urtemugako hamabostaldia... **06-10.**

ALBISTEA.
Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna. **10.**

BERRIKETAN GAZTEA. Debako biztanleria eta auzoak, elkarrizketa Amaia Agirre irakasleari, denbora-pasak... **11-14.**

LABURRAK. Aitor Saumellen argazki erakusketa, Euskararen Nazioarteko Eguna... **ZERBITZUAK. 18.**

EGIN ZAITEZ BAZKIDE ZUHATZAN



260 bazkide gara dagoeneko Zuhatzan; eskerrik asko denei.

943 19 13 83

40.000 € inguruko aurrekontua du Zuhatzak 2012. urterako.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

MARKIEGIREN OMENALDIA ANTOLATU ZUTENEI

Mar del Platan, 2012ko urriaren 22an

Willy: Ni, Itziar Markiegi Garate, zuri zuzentzen natzaizu, eta zure bitartez baita nire aita zenaren (Polentzi Markiegi Olazabal) omenaldia antolatu zuten Debako herriari eta agintariei ere.

Errespetu, edukazio eta maitasun osoz burututako omenaldia izan zen, heroi bat izan zen haren oroimenez egindakoa.


Polentzi fusilatu zutenetik 75 urte pasa direnean, zoritxarreko garai bidegabea, emozioz eta pozez bete nau ikusteak hirugarren belaunaldiak bere garaian zer gertatu zen, eta zergatik, jakin duela (nahiz eta garai hura ez zuten zuzenean bizi).

Nire bizitzako une honetan, nire seme-alabekin batera (Adolfo Florencio, Pedro José eta Itziar) Debara joateko aukera izatea ohore bat izan da niretzat. Eta bertan presente egondako Debako herria bihotz-bihotzez zoriondu nahi dut; barrutik hunkituta sumatu nuen, isiltasun sendo-sendo horrek guztia esaten baitzuen.

Besarkada bat bidali nahi diet aurrera jarraitzeko indarra eman didaten guztiei, bizi izandakoa oso ederra eta ahaztezina izan dela gogoratzu.

Besarkada bat,

Itziar Markiegi



*Oharra: Itziar Markiegi Argentinatik bidalitako gutuna gazteleraz jaso dugu erredakzioan. Idatziak herritarrentzat izan dezakeen garrantziaz jabetuta, **Berriketan** aldizkariak, salbuespen bat egininda, idatzia euskaratzea eta argitaratzea erabaki du.

ZAIN DEZAGUN HERRIA!!

Haur eskolan nabil, oraindik ez dakit ibiltzen, baina banao hazten eta laster ikasiko dut. Mundua nire ahoaren bitartez aztertzen dut, eskuak jada deskubritu ditut eta hauekin harrapatzen dudana ahora daramat, bere zapore, testura eta koloreak aztertzeko. Haur eskolan oso ondo zaintzen naute, eta dena txukun eta garbi mantentzen dute nik mundua lasai azter dezadan, nire mundu txikia. Baina a ze sorpresa jaiegun ondorengo egunetan! Nire eskola polit eta koloretsuaren atean zenbat gauza berri egoten diren! Egia esan, kolore politik ez dute eta hainbeste zaintzen gaituzten zaintzaileek, dena txukun eta garbi mantentzen...

Zaindu mesedez gure gunea eta gure jolastokia!! Polita izaten jarraitu dezan eta nik edo nire laguntxoren batek istripuren bat izan ez dezagun!

Mila esker denoi!!

O.I.





MATTIN URBIETA

TXIKI ETA HANDI

Badakigu, esperentziaz, zerbait txiki eta handi izan daitekeela; perspektiba kontua dela. Begi berekin begiratuta ere, begirada da aldatzen dena, pertzepzioa. Horrela, zerbaiten neurria, tamaina zehazteko orduan, konparatzera jotzen dugu; zenbait erreferentzia hartu eta horien arabera sailkatzen dugu gainerako oro, eta eskala bat egiten. Handia bere txikitasunean, maiz esaten den gisan, edota txikia bere handitasunean.

Adibidez, Everest-ek (8.848 m) oso garaia dirudi, baina muino txiki bat dirudi Marten kokatzen den *Olimpo Mendia*-rekin alderatuta. 27 kilometro garaiera du. Egun pasa joateko toki aproposa, zinez, geure irudimenean bada. Urrun baitirudi *planeta gorriak*; gertu, ordea, beste planeta batzuekin alderatuta; zer esanik ez beste galaxietan dauden izarrekiko distantzia hartzen badugu kontuan. Irudimena ere motz geldituko da sarri halakoetan. Hauts zatirik ñimiñoena baino txikiago sentitzen gara halakoetan.

Txikitasunerantz joz gero, ordea, bada txikiago denik. Bizitza txikitasunetik hasi baitzen. Baina horren barnean ere bada nahiko misterio. Txikitasuna ez baita sinpletasunaren sinonimo. Atomoak, gaur egun aski ezagunak, ez dira materiaren osagai txikienak (eta txikiak dira, oso!) zenbait filosofo greziarrek uste bezala. Badaude elektroiz, neutroi eta protoiak, eta baita ezezagunago diren

beste partikula batzuk ere. Eta mundu mikroskopiko, subatomiko horretan, mekanika kuantikoak agintzen du, Fisikako ikasleoi horrenbeste buruhauste bezainbeste zirrara sortzen digun alorra.

Munduan, beraz, denerako tokirik bada, izan txiki ala handi. Pertsonok garen gisan, handi eta txiki. Hor tartean kokatzen baikara. Eta halaxe sentitzen

gara, txiki edo handi, egoeraren arabera, unearen arabera. Txiki sentitzen baita bat horrenbeste injustiziaren aurrean. Txiki sentitu behar baita bat banketxeak kalean uzten duenean, lanetik botatzen dutenean. Txiki sistemaren aurrean.

Handi sentitzen gara, berriz, geure txikitasunean, gure antzekoekin elkartzen garenean, gure nahi eta desioak aurrera eramateko biltzen garenean. Handi, dugun oro ematen dugunean. Aurrera egiteko elkartzen garenean, amorerik emanen ez dugula sinetsiak garenean. Handi baikara, txiki garen neurrian.

Azkenik, batzuek diote txikitasunak desabantailak soilik dakartzala. Handia eta bakarra aldezten dute. Librea ere esango dute, nahiz eta, egunez egun, ageriago gelditzen den hala ez dela. Handi omen zena hausten ari baita, sortzetik beretik baitzituena pitzadurak. Handitasunetik txikitasunera pasatzeko arrazoiak egunez egun anitzagoak eta indartsuagoak dira. Txiki izanik handi izan baikaitzke.



Elkarlanaren fruitu

Ekitaldi guztiak amaitu zirenetik hilabete pasatu den honetan, banan-banan hitzaldiak, erakusketaren inaugurazioa, ekitaldi instituzionala eta fusilamenduaren urtemugako omenalditxo oroitzerakoan zera galdetzen diogu geure buruari: nolatan hain denbora gutxian antolatutako zerbaitek izan duen hainbestearinoko arrakasta. Inpresioa dugu Markiegiren itzalak bazuela oraindik guk uste baino indar handiagoa. Azken bultzadatxo bat bakarrik behar zela herritarrek gure alkate ohiari zioten errespetua eta miresmena azaleratzeko. Lantaldearen aniztasunak ere indar berezia eman zion ekimenari eta agerian utzi du, helburuak argi izanez gero, gauza asko egin daitezkeela herri honetan.

Momentu hunkigarritz betetako egunak izan dira, Polentziren senitartekoentzat bereziki, aspalditik preso zeuden emozio eta bizipenak berpiztu baitzitzaizkien. Irudi bat aukeratzekotan, Itziar ikusten dugu kanposanturako bidean errepidea zeharkatzen bere haurtzaroan izango zuen energia berberarekin bizi-bizi, bere aitaren hilobia lore sorta batekin apaintzera zihoala. Hainbeste zapalkuntza sufritu zuen neska koskor hura emakume heldu, gordin eta bizia bilakatu zaigu, bere aitaren oroimena lagun izango zuen urte hauetan guztietan eta azkenean konturatu zen berak zion maitasun berbera ziola herriak.

Polentzirekin genituen zorrak zertxobait gutxitu badira ere, beste asko dira garai latz haietan gorriak ikusi zituztenak; gizon-emakume horiek guztiak itzaletatik argira ekarri behar ditugu, hasitako lanari jarraipen bat emanez. Azkenik, eskerrak eman ekitaldi guztietan parte-hartzaile izan ditugun herritar guztiei.

*Xabier Laka,
Markiegi 75 lantaldearen izenean*



Izan zirela

Willy Berasaluze Polentzi Markiegiren iloba baten semea da. Azken asteotan, fusilamenduaren urtemugako ekitaldiak antolatzeko lantaldean aritu da lanean buru-belarri eta, besteak beste, berak sortu du Alamedan jarritako eskultura ere.

Zer moduzkoa izan da eskultura sortzeko prozesua?

Gogorra! Eskultura ez da nire ogibidea; eta, hortaz, Elgoibarko tailerrean zortzi orduz lan egin eta gero, nire tailerrean, OILOTOKIAN, sartzen nintzen eskulturari ematera. Hala ere, askoz gogorragoa egin zait eztarrian 15 egunez korapilo bat eramatea.

Nolakoa da eskultura?

Hiru metroko pare bat burdin puska ditu, lau metro karratuko oinarri batean

tente daudela. Guztira, 730 kilo edukiko ditu. Dena, plaka izan ezik, CORTEN materialean eginda dago. Material honek daukan berezitasuna da gorri kolorean herdoiltzen dela, eta herdoil hori ez duela galtzen.

Zergatik jarri da Alamedako gune jakin horretan?

Pare bat leku genituen buruan, eta aukeratzeko orduan Mikelek eta Alexek lagundu didate. Argi genuen, ahalik eta jende gehienak ikusiko zuen leku bat izan behar zela. Azkenik, atzetik daukan zuhaixka berde ilun hori ikusita, Gazteleku parean egon behar zela erabaki genuen.

Zer irudikatu nahi izan duzu zure artelanean?

Hasiera batean, marrazkiak besterik ez dira. Egunak aurrera doazela, entzuten





inko gara...



*Willy Berasaluze:
“Polentzik bezala lan
egin zutenei eta
gudarengatik gaizki
pasa zutenei eskainita
dago eskultura”*

dituzun istorioek, edota eguneroko ekin-
tzen inguruan sortzen diren gauzek
honako hau pentsatzera eraman ninduten:

“Atea irekita dago.

Jakin dezagun... barkatu dezagun.

*Zati ezberdinetan sortutako oinarrian
tinko, istorioa, gizona.*

Ahaztu ez dezala,

berriro gerta ez dadin.

*Ezezagun batzuen lanaz, aurrera atera-
tako ekintza, aurpegi batean irudikatua.*

Eredu gisa har dezagun”.

Atzeko bi paretek atea irudikatzen
dute; eta horietan, Jorge Oteizari keinu
bat bota nahi izan diot. Oinarria, ondo
lotutako zati ezberdinak dira; eta hor
Eduardo Chillidarentzat izan da keinua.
Bi eskultore hauek dira ni gehien markatu
nautenak. Eta azkenik, bustoa. Pusketa

txiki pila batez eginda dago. Puska
horiek guztiak txatarretik ateratakoak
dira. Txatarrari inork ez dio garrantzirik
ematen, baina gogoia edukita, eta gogo
hori ondo bideratuta baldin badago,
halako gauzak egin daitezke. Hemen
lantaldea eta lan egin duen jende guztia
omendu nahi izan dut.

Eskulturak daukan plakan
Polentzi Markiegiaren izena agertzen
da, baina eskultura bera Polentzik bezala
lan egin zutenei eta benetan gudaren-
gatik gaizki pasatu zutenei eskainita
dago.

**Familiak zelan bizi izan ditu egun
hauek?**

Hasieran beldurrez. Kontu hauek beti
mantendu dira isilean eta, 75 urte pasa
diren arren, oraindik pil-pilean daude
oroimenean. Inori minik ez ematea izan

da ardura garrantzitsuena, baina
ekimenak hasi eta lasaitu egin ziren,
kontu handiarekin burutu direlako.
Ekintzak bukatu zirenetik, ez da egun
bakar bat pasatu eskerrak eman gabe...

**Argentinatik espresuki etorritako
senideak zein sentsazioekin buel-
tatu dira?**

Itziar eta bere seme-alabak
Argentinara bueltatu eta hurrengo
egunean deitu egin zidaten eskertzeko.
Esan zidan gauza batekin geratu nin-
tzen: *“Parecía que nos hubiéramos
visto el día anterior”*. Beraien sentsa-
zioa izan da beren herrian zeudela,
herritarren artean izan direla. Beraz,
poz handiz bizi izan dituzte egun
hauek, eta pena handiagoarekin buel-
tatu dira Argentinara. Itziar koitaduak,
malkoak litroka bota ditu...



**Urrian bete ziren
75 urte Polentzi
Markiegi fusilatu
zutenetik**





GOAZ, erakusketaren inaugurazioan



Erakusketa



Iñaki Egaña



Debako alkate ohiek eta egungo alkateak aldamenteo dokumentu instituzionala sinatu zuten



Haitz Haundik prestatutako murala



Fusilamenduaren urteurrenako ekitaldia



Itziar Elosua eta Gerra Zibila

Urriaren 11n, 5. mailako ikasleek gerra zibilar buruzko elkarrizketa izan zuten Itziar Elosuarekin. Aurrez aldetik, gelan galderak denon artean pres-tatu genituen eta aukeraketa egin ondoren, argazkiak atera eta gela batera joan ginen. Hainbeste gertaera bitxi kontatu zituen, ikasleak harrিতuta geratu ziren. Hurrengo egunerako, bakoitzari elkarrizketari buruzko lantxo bat egiteko eskatu genion eta hona hemen haur batzuek nola azaldu zuten Itziarrendik jaso zutena.



***ITZIARREK** kontatu zigun Polentzi Markiegi oso pertsona jatorra eta ona zela.

Gernikan oso gauza txarrak egon ziren, baina okerreka Gernikako bonbardaketa izan zen. Bertan, 50 tona bonba bota zituzten.

Itziarren amak okindegi bat zuen eta berak etxez etxe eramaten zuen ogia, eta propinatxo bat ematen zioten. Egund batean, etxe batera joan zen ogia lagatzera eta jende oso arraroa igaro zen handik. Denak fusilekin zeuden eta Itziar saltaka bere etxera joan zen eta amari gertatutako dena azaldu zion.

Bere amak esan zion gerra zela, baina Itziarrek ez zekien zer zen gerra, eta are okerrago jarri zen.

Halako batean, itsasontzi bat etorri zen eta itsasontzian zegoen gizon hark esan zien hortik joan egin behar zirela. Itziar joan egin behar zen, baina bere amak ez zuen joan nahi. Itziarrek oso gaizki pasatu zuen momentu hartan.

Ondoren, Polentzi Markiegi fusilatu zutela abisatu zieten. Itziar eta besteak Frantzian zeuden bitartean, Francok Itziarren aita kartzelan sartu zuen.

BITOR GARITAONANDIA

***ITZIAR** Elosua gerra bizi izan duten emakumeetariko bat da.

Garai haietan ez zegoen gaur egun beste jostailu eta beste era batera jolasten zuten. Janaria, berriz, baserrietatik lortzen zuten. Hotz handia egiten zuenean, bi, hiru edo lau jertse eramaten zituzten soinean jantzita.

Bere amak okindegi batean egiten zuen lan. Gerra zibila hasi zenean Frantziara bidali zituzten bera eta bere

familia. Frantziara iristean, topo egin zuten Polentzi Markiegiren senitartekoekin.

Itziarren aita eta Polentzi Markiegi espetxean denboraldi batez egon ziren eta Polentzi fusilatua izan zen.

Baimena eman zieten beraien herrira itzultzeko, etorri egin ziren baina aita espetxean jarraitzen zuen oraindik ere. Handik egun batzuetara, Itziarren izeba hil eta bere aita berriro bueltatu zen.

IRATI ARRAZUA

***GAUR**, eskolara, Itziar Elosua etorri da, Itziar gure andereñoaren ama. Gerra zibilar buruz hitz egitera etorri da; berak orduan 13 urte inguru zituen. Galdera batzuk egin dizkiogu eta argi eta garbi erantzun dizkigu.

Gauza asko azaldu dizkigu: herritik nola bota zuten, Markiegiren emazteari Markiegi hil zutela gutun batez adierazi ziotela, eta abar.

Baina egietan hunkigarria iruditu zaidana da bonbak bota zituztela esan duenean. Eta berak gertaera horretan zer

egin zuen kontatu digu: bonbak bota aurretik bera Mutrikuko hondartzan zegoen, Hondarbeltsen, hain zuzen ere. Bat-batean, hegazkinen hotsak entzun zituen eta Itziar izutu egin zen. Urasandi inguruko haitzetara joan ziren ezkutatzera. Eta, denbora pasa ondoren, bukatuta zegoen.

Oso gauza interesgarriak kontatu dizkigu Itziarrek eta orain oso ondo dakigu gerra oso gauza triste eta beldurgarria dela.

JONE GOMEZ



Josu Erkoreka



Martin Garitano



Dantzariak, eskultura parean

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

Azaroaren 25a (igandea) izango da Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna, eta egun horren bueltan ekimen ezberdinak antolatu ditu, aurten ere, Debako Udaleko Berdintasun Sailak. Deialdietan parte hartzeko deia ere egin die herritarrei (behean duzue Udalak adostutako adierazpen instituzionala ere).

Egitaraua Beldur Barik! lehiaketaren sari banaketarekin (eta ondorengo lunch-arekin) abiatuko da, azaroaren 22an (osteguna). Ekitaldia Kultur Elkartean izango da, 19:00etan.

Azaroaren 25ean bertan, emakumeenganako indarkeriaren aurkako elkarretaratzea egingo da. Foruen plazan izango da hitzordua, 12:00etan.

Bestetik, aurtengo egitarauari bideo-forum baten bitartez emango zaio amaiera. Azaroaren 27an (asteartea), 19:00etan, "Emakumeak Francoren espetxeetan" Errepublikara garaiako emakumeen egoerari buruzko bideo-foruma egingo da, Kultur Elkartearen aretoan. Bertan, Maria Gonzalez arituko da hizlari.

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIARI EZ



Udalak adostutako adierazpen instituzionala

Beste urte batez, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, Debako Udalak biolentzia matxistaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du, gure udalerrian ere irauten duen gaitza baita.

2012a hasi zenetik 5 emakume erail dituzte Euskal Herrian eta milaka dira komunikabideen bitartez jasotzen ditugun kasuen albisteak. Eraso sexistaren inguruko gertakariak eta salaketak egunero entzun ohi ditugun elementuak dira. Herriko jaietan edota jai eremuetan emakumeon askatasuna baldintzatu eta eraso sexistaren areagotzea ematen da. Lan eremuan ematen diren sexu jazarpenen datuak kezkatzekoak dira. Gazteriaren artean sexuen arteko botere harremanak eta balore patriarkalak iraunarazteaz gain, mutil askok nesken kontrako indarkeria ere baliatzen dute...

Emakumeen aurkako biolentziak, izaera fisiko, sexual edo psikologikotik harago, izaera ekonomiko eta soziala ere badu. Horregatik, Udal gisa emakumeen aurkako biolentziaren aurrean dugun jarrera, bikote edo bikote ohi eremuan ematen den biolentziatik haragokoa izango da.

Aurten, bizi dugun egoeraren aurrean ezin dugu beste aldera begiratu; are gutxiago gure eskubideak egunetik egunera murrizten ari direnean:

-Bikote edo bikote ohi eremuan ematen diren etengabeko tratu txar fisiko eta psikologikoen adierazpenak SALATZEN DITUGU. Emakumeak izate hutsagatik kolpe, paliza eta heriotzak gertatzea onartezina iruditzen zaigu.

-Hainbat ordezkaritza politikoa, agente sozial, judizial eta komunikabideren aldetik egindako adierazpenak SALATZEN DITUGU, emakumeak herritar tutelatuta gisa eta norbere bizitzaz erabakitzeke ahalmenik gabe kokatzen dituztelako.

-Krisiaren baitan, zerbitzu publikoen murrizketek -bereziki

zaintzari dagozkionak-, biolentzia arriskua handitu dezaketen ahultasun egoerak sortzen dituztela SALATZEN DUGU, obediencia eta sumisioan oinarritutako harremanetan, hain zuzen ere.

Horregatik guztiagatik, Udal honek, ekitatea eta emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna oinarri izango dituen beste eredu sozial baten eraikuntza aurrera egiteko konpromisoa hartzen du. Emakumeenganako biolentzia bukatzeko bide bakarra izanik eta bide honetan mugimendu feministari entzun eta berarekin parte hartuz, norabide honetan egindako ibilbideagatik eta helburu hori lortzeko duen lidergo historikoagatik.

Horren guztiaren jakitun, Udal honek:

- KONPROMISOA HARTZEN DU indarkeriari aurre egiteko politikari integralari dagokionez; mota desberdinetako neurriak hartu beharko ditugu kontuan, heziketan oinarritutako prebentzio neurriak, eraso baten ondorengo neurri asistentzialak edota erantzun soziala artikulatzeari begirakoak, besteak beste.

- KONPROMISOA HARTZEN DU, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, osoa eta koordinatua garatzeko, hitzetik ekintzetara pasatuz. Eta, horretarako, genero indarkeriaren biktimak diren emakumei zuzendutako arreta programa guztien aurrekontuak mantenduko ditugu.

- KONPROMISOA HARTZEN DU autodefentsa feministaren beharra transmititzeko eta emakumeak animatzeko lanketa berezia egin dezaten, horretarako bitartekoak jarrita.

GONBITEA EGITEN DIE herritar guztiei, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, herri edo eskualde mailan antolatzen diren mobilizazioetan parte hartzeko.


Deban, 2012ko azaroan

EH Bilduk irabazi ditu hauteskundeak Deban

Urriaren 21ean burutu ziren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, Deban EH Bildu koalizioa izan zen lehenengo indarra. Guztira, 4.266 herritar zeuden botoa ematera deituta, eta horietatik 3.042k baliatu zuten boto eskubidea. Abstentzioa %28,69koa izan zen, (2009an baino hiru bat puntu txikiagoa, hain zuzen ere). Hamahiru herritarrek

eman zuten boto baliogabea, eta 35ek boto zuria (2009an bezalaxe).

EH Bilduk 1.256 boto eskuratu zituen, boto guztien %41. Bigarren indarra EAJ izan zen, 1.111 boto lortuta (%40), eta hirugarren indarra, berriz, PSE-EE izan zen, 254 botorekin (%8). Bestetik, PPK 101 boto eskuratu zituen, Ezker Anitzak 59, Ezker Batuak 49 eta UPyDk 19 boto.



BERRIKETAN GAZTEA

2012ko azaroa
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrear Surtua.

DEBAKO BIZTANLERIA ETA AUZOAK

Deban hamar landa auzo daude, 1.054 biztanlekin: Egia, Elorriaga, Mardari, Itxaspe, Arriola, Itziar, San Nikolas, Lastur Goia eta Behea, Endoia, Arbiskoa. Debak 51,9 km²-ko azalera dauka eta 5.439 biztanle ditu guztira. Aurten, Debako kaleko biztanleria 4.329koa da; aurreko urtearekin alderatuta jaitsi egin da (zehatz-mehatz 57 biztanleko alde dago). Deba osoan, auzoak barne, iazko urtearekin alderatuta, biztanleria igo egin da (19 herritar gehiago), aurten 5.439 biztanle ditugulako eta iaz 5.420 ginelako.

Gizonezkoen kopurua igo egin da, iaz 2.718 baitziren eta aurten, berriz, 2.736. Emakumezkoen kopurua ere igo egin da, baina

oso gutxi; izan ere, iaz 2.702 emakume ziren, eta aurten 2.703.

Arriola auzoan hamar baserri daude, Egia auzoan 19, Elorriagan 31, Itxaspen 35 eta Mardari auzoan 28. Lastur Behean 13 baserri daude eta Lastur Goian, berriz, 21. Arbiskoa auzoak 17 baserri dauka eta Endoiak, berriz, 16. San Nikolas auzoan frontoia, eskola, bi etxe, aterpea eta ermita daude. Itziar auzoan 7 baserri daude, baina Itziarko kaleetan 476 biztanle daude aurten, eta iaz 462 ziren. Beraz, urtebetean, 14 biztanleko igoera izan du Itziarrek. Debaren parte izan arren, herri izaera sendoko komunitatea da.





ELKARRIZKETA

Oraingo honetan, Mendata institutuko Amaia Agirre Musika irakasleari egin diogu elkarrizketa. Txikitan zer izan nahi zuen galdetu diogu eta orain duen lanari buruz ere aritu gara berarekin.

“Oso gustora nago irakasle bezala institutuan”



Txikitan zer izan nahi zenuen? Zergatik?

Irakaslea edo albaitaria izan nahi nuen, animaliak eta umeak asko gustatzen zaizkidalako.

Zergatik izan nahi zenuen musikako irakaslea?

Musika asko gustatzen zaidalako eta, gainera, musikarekin erlaxatu egiten naizelako. Asko gustatzen zait musika jotzea eta entzutea.

Zenbagarren urtea duzu ikastetxe honetan?

Hau nire bosgarren urtea da institutuan. Baina lehenago beste herri batzuetako institutuetan egon naiz.

Gustora al zabilta Mendata institutuan? Eta zer moduz ikasleekin?

Bai, oso gustora ibiltzen naiz Mendatan.

Ikasleekin ere oso ondo, gehienak oso jatorrak direlako orokorrean.

Zer instrumentu jotzen dituzu?

Txalaparta, txistua, pianoa, akordeoia... jotzen ditut.

Mendatan irakasteaz gain, non gehiago aritu izan zara irakasle? Gustora egon al zara leku haietan ?

Leku askotan: Donostian, Bilbon, Mutrikun, Irunen... Bai, beste institutuetan ere oso gustora egon naiz.

Mendata ikastetxean jarraitzeko asmoa al duzu?

Bai, Mendata ikastetxean jarraitzeko asmoa dut, oso gustora bainago.

KIROLA



INKESTA

Hilabete honetan Mendata ikastetxeko ikasleei kirolari buruzko inkesta egin diegu, eta erantzun hauek jaso ditugu:

- 1.- Kirolik egiten al duzu? Zein? Zein duzu gustukoen?
- 2.- Noiz joaten zara entrenatzera?
- 3.- Zein da zure kirolari gustukoena?
- 4.- Ba al duzu gustuko kirolik, baina aukerarik ez hura praktikatzeko?
- 5.- Zure lagunekin praktikatzen al duzu kirola?
- 6.- Neketsua al da?



Joseba Beitia:

- 1.- Bai. Futbola. Futbola dut gustukoena.
- 2.- Astearte eta ostegunetan.
- 3.- Iniesta dut gustukoen.
- 4.- Bai, tenisa.
- 5.- Bai, nire lagunekin jolasten dut.
- 6.- Bai, neketsua da.



Maialen Beristain:

- 1.- Aerobik, dantza eta surfa. Dantza dut gustukoen.
- 2.- Dantzara asteazkenetan.
- 3.- Aritz Aranburu.
- 4.- Bai, igeriketa.
- 5.- Bai.
- 6.- Batzuetan.



Telmo Soto:

- 1.- Bai. Futbola. Futbola.
- 2.- Astearte eta ostegunetan.
- 3.- Kaká.
- 4.- Bai, tenisa.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai, noski.



Ekaitz Zubimendi:

- 1.- Bai. Surfa. Surfa.
- 2.- Olatuen arabera.
- 3.- Mick Fanning.
- 4.- Ez.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai.



Ainhoa Salegi:

- 1.- Bai. Futbola. Futbola.
- 2.- Astearte eta ostegunetan.
- 3.- Iñigo Martinez.
- 4.- Igeriketa.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai, batzuetan.



Lukas Pereira:

- 1.- Bai. Futbola. Futbola.
- 2.- Ostiraletan.
- 3.- Lionel Messi.
- 4.- Tenisa.
- 5.- Bai.
- 6.- Batzuetan.



Xabier Arostegi:

- 1.- Bai, futbola eta euskal dantza.
- 2.- Astearte, ostegun eta ostiraletan.
- 3.- Puyol.
- 4.- Saskibaloia eta igeriketa.
- 5.- Bai.
- 6.- Batzuetan.



Leire Alberdi:

- 1.- Bai. Futbola. Futbola.
- 2.- Astearte eta ostegunetan.
- 3.- Griezman.
- 4.- Ez.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai, batzuetan.

DenBord-pasaK

TXISTEAK

***Mozkor bat kaletik doa eta sudurluze bati zera esan dio:**

-Itsusi! Itsusi!

Eta hark erantzun dio:

-Mozkorra! Mozkorra!

Eta mozkorrek hala esan dio:

-Bai, niri biharko pasako zait, baina zuri ez!

***Ume batek bere lagunari:**

-Nire aitak hamar urtean ez du ilea moztu.

-Zer da ba? Artista bat al da?

-Ez, burusoila da!



asmakizunak

***1.-Bi mendiren artean tiro zaratatsua, sudurra itxiarazten duen tiro usaintsua. Zer da?**

***2.-Udan jendez beterik, neguan huts-hutsik; zutik baino jende gehiago egoten da han etzanik.**

SUDOKUA

7	2				4	3	8	
4	9	8	1		2		7	
6	5	3		7	8		9	
	4		8		9			
		7		1		8		
	8	9	6		7		2	3
9				8		7		4
7		6			4		8	
8	2				1	3		6

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PFHTSA TALDEA 2012-2013

Naia Orbegozo
Maria Aizpurua
Jon Yarza
Iratz Fernandez
Imanol Sobrado
Jon Albizu

Aitor Gonzalez
Alex Treku
Ane Garcia
Nora Mandiola
Iker Leiro
Amaia Mendicute

Koordinatzailea: Alberto Agirreazaldegi

EMAKUMEZKOEN PALA TXAPELKETA

Garai batean ohikoa zen emakumeak erraketan jokatzen ikustea Euskal Herriko pilotalekuetan. Abuztuko aldirian bertan ikusi ahal izan genuen Debako argazki bat, 1915eko (hemen alboan duzue). Euskal Jolas ageri da bertan, jendez gainezka (gizonez gainezka egokiagoa litzateke), emakumezkoen partidak ikusten.

Argazkian, lau emakume ikus daitezke (binaka jokatzen zuten seinale), goitik behera zuriz jantzita, gonekin eta txapel edo zapi batek burua estaltzen diela. Eskularru beltzak diruditenak ere gonako poltsikoetan daramatzate. Bi gizonezko ageri dira aulki banatan; epaileak izango dira, edo apustu egileak? Markagailua ere bertan da.


Gaur egundik begiratura, bitxikeria dirudi, arraroa, ustez ia etxeko lanetara baino emana ez zegoen andrazkoa ekitaldi publiko batean protagonista modura ikustea; publikoa (argazkian ikusten den bezala) nabarmen gizonezkoa zenean, gainera.

Ia mende oso bat pasa da argazki hori egin zenetik gaur egunera. Ia 100 urte. Ez dakit denbora asko ala gutxi den baina tarte horretan emakumezkoen pilota partidak jaisten joan dira frontoietan, ia desagertzeraino. Deban eta, oro har, Euskal Herri osoan esango nuke.

Zaletasuna egon badago, ordea. Beste modu batean ezkutatuta, akaso. Hondartzan jolasten dugu, lagunekin, seme-alabekin... edo frontoian ere bai baten batzuk, baina bakarrik gehienetan. Eta horixe da aurtengo emakumezkoen binakako pala txapelketarekin lortu nahi genuena; txapelketa aitzakiaz hartuz jendeari "goazen jolastera!" esatea; "goazen ondo pasatzera eta elkar ezagutzera!"

Eta horixe lortu dugula esango nuke, neurri handi batean behintzat: 16 bikotek eman dute izena txapelketan. 16 bikote, 32 emakumezko. Eta ordezkoeekin, 40 bat izatera heldu gara. 6-7 Mendaro, Elgoibar eta Soraluzetik etorri zaizkigu (aupa, haiei!), eta beste 26-33 herrikoak bertakoak izan dira (aupa, zuei!). Lehenengo aldia izateko ez dira, ez, kopuru kaxkarrak nire ustez.

Partidek aurrera egin ahala, argi ikusi da bi maila desberdin genituela txapelketan. Kanpotik etorri zaizkigunak eta Debako bikote bat erraz nabarmendu dira txapelketa osoan zehar. Gainerako guztiok beste maila batean ibili gara; baina asko disfrutatu dugu denok (urduritasunak urduritasun).



Argazkia: Indalecio Ojaguren (Gipuzkoa Kultura).

Urriaren 20an jokatu ziren finalak. Frontoian jende dezente partidak ikusten (neska zein mutil oraingoan). Giro ona eta umore aparta. Sariak banatu, taldeko argazki bat atera, pare bat txikito hartu eta bazkaltzera Bordatxora. Egun borobila, txapelketa ezin borobilagoari amaiera emateko.

Jendea gogoz geratu da. Martxoan beste bat antolatzeko eskatu du. Mereziko du aurtengo jendeaz gain, gazteagoak ere erakartzeko ahalegintxoia egitea. Nolanahi ere den: jolasten eta jokatzen segitzeko egun eta ordutegiak zehaztu ditugu gure artean. Dinamikatxo bat sortu da; jarraitu egingo dugu. Denok zaudete gonbidatuta.

Imanol Etxeberria (Euskal Jolas pilota elkartearen izenean), Itziar Albizu, Marilu Albizu eta Amaia Zinkunegi

SARITUAK:

2. mailan:

Txapeldunordeak: Sheila Gonçalves eta Sonia Fernández (Deba). Txapeldunak: Dorleta Aranberri eta Itxasne Idoeta (Mendaro).

1. mailan:

Txapeldunordeak: Ainitze Agirrezabala eta Jone Loiola (Deba eta Elgoibarkoak). Txapeldunak: Amaia Ariznabarreta eta Hiart Arluziaga, Soraluzekoak (Hiartek Sandra Gonzálezen ordez jokatu zuen).



Ander Salegi

Deba eta Itziar 40 bat lagun Behobia-Donostian

Aurtengo Behobia-Donostia lasterketan 21.000tik gora atletak hartu dute parte, eta horien artean debar zein itziartarrak ere izan dira, beste behin ere. Guztira 42 lagunek amaitu zuten azaroaren 11n egindako proba. Korrikalari gehienek Deba-Itziar Extreme Taldeak antolatutako autobusean egin zuten joan-etorria, eta denbora onak egitea lortu zuten. Rikardo Idiak ez itziartarrak 1:19:27 denbora egin zuen, adibidez, eta Eñaut Berasaluzen izan zen lehenengo debarra helmugara iristen (1:20:31). Jose Luis Sudupe de Benito (1:21:07) eta Harkaitz Aizpuru (1:23:15) ere fin aritu ziren proban. Lur Altzibar izan zen azkarrena senior kategorian, emakumezkoetan: 1:37:34.

Amaitu da Euskadiko Hiru-Txirlo Txapelketa

Urriaren amaieran bukatu zen Euskadiko XXIII. Hiru-Txirlo Bolo Txapelketa, eta Asola Berri taldeko Jose Mari Larreategi nagusitu zen, 20 txirlorekin. Hamargarren postuan gelditu zen Lasturko Joseba Lazkano, hamaika txirlorekin. Taldeka ere Asola Berri B eibartarra izan zen garaile, 47 txirlorekin, eta emakumezkoen artean Idoia Muñozek (Floreaga) irabazi zuen lehia, 10 txirlo jaurtita. San Migel taldeko Jabier Osoro izendatu dute aurreko Gipuzkoako bolari onena (32 txirlo).

Geoparkeak jakin-mina piztu du sarean

Basquetour Turismoaren Euskal Agentziak egindako azken txostenaren arabera, "Flyscharen Ibilbidea" izan da EAEko turismo ataria (www.turismo.euskadi.net) bisitatu duten erabiltzaileen artean interes handiena piztu duen esperientzia, 2012ko uztaila eta iraila bitartean. Bestalde, "Flyscha haurrentzat" bigarren esperientzia bisitatuena izan da.

Gure Balioak 2012 Saria, Jesus Bilbaorentzat

Gure Balioak Sariaren III. edizioan, Jesus Bilbao elgoibartarraren gaitasun ekintzailea saritu du Debegesak, batik bat enpresaren alorrean egindako lana eta ekarpena goraipatuz. Gure Balioak egitasmoak Debarrenan gizarte-balioak sustatzea eta eskualde jasangarri eta lehiakor bat lortzeko bidean balioen garrantziaz ohartaraztea du helburu.

Aitor Saumellen argazki erakusketa

Hilabete honen amaiera partean, Seven Clovers Irish Pub tabernak Aitor Saumell Esnaola (Deba, 1988) gaztearen argazki erakusketa hartuko du –gabonak bitartean izango da ikusgai–.



Aitor Saumellen ibilbide artistikoa Donostian hasi zen, diseinatzaile grafiko bezala. Diseinu eta argazkilaritzari buruzko hainbat ikastaro egin ondoren, libre gelditzen zitzaion denbora kirol munduan pasatzen zuen, Spinning, Body Pump, Body Combat eta abarren klaseak ematen. Gaur egun arte, kirolean murgilduta jarraitu du gazteak, baina beste esparru batzuk ere landu ditu. Besteak beste, ETBren proiektu batean sartu, eta aktore lanetan aritu zen "Golazen" film eta telesail arrakastatsuan. Gerora, duela urtebete inguru, Bartzelonara jo zuen bizitzera, jendea ezagutu eta aukera berrien bila.

Aitorrek kontatu digunez, Bartzelonara iritsi bezain laster, arropa denda batean hasi zen lanean; "eta poliki-poliki beste bide bat hasi zen irekitzen, modarena, alegia". Dena den, datorren urteari begira, Bartzelona utzi eta Estatu Batuetara joateko asmotan dabil, Los Angelesen erreportari bezala aritzeko kontratatu baitute.

Aipatutako ibilbidea kontuan hartuta, Aitorrek diseinatzaile grafiko, argazkilaria, aktore, abeslari, dantzari edota kirol monitore bezala aurkezten du bere burua. *Berriketan*-ek Debara dakarren erakusketaz galdetu dio:

*Nolako erakusketa antolatu duzu?

Orokorrean, erakusketarako prestatu ditudan argazkiak diseinuaren ikuspuntutik aterata daude. Batzuetan, geometriaren konposizioarekin jolasten dut eta beste batzuetan koloreekin konposatzen hasten naiz. Normalean, jendeak gai bat ikusi nahi du baina, nire ustez, zuk nahi duzuna erakusten

duzu, gai bat aukeratu gabe. Adibidez: gaur triste sentitzen naiz, eta kasualitatez argazki kamerakin nago Bartzelonako Maremagnum-ean paseatzen; ekaitza sortzen da orduan, eta hor dago argazkia! Sentimenduarekin ateratzen ditut argazkiak, eta gai ezberdinak erakusten ditut, baina beti jokatzen dut emozioekin. (...) Irudia oso garrantzitsua da, bai argazkia aurkezteko orduan, eta baita ateratzeko orduan ere. Dena da artea. Zein den nire gaia? Artea; nire begiak ikusten duena.

*Nondik dator kizua argazkilaritzarekiko zaletasuna, Aitor?

Beno, erantzun nahiko tipikoa da, baina artista mundu hau dena familiatik dator; garbiago esanda, aitaren partetik dator kizua argazkilaritzarena, edo musika nahiz arte mailan sartu daitekeen edozer gauza. Egia da ikasketak ere badirela, baina hau dena odolean eramaten da beti.

*Zer proiektu duzu orain esku artean?

Beti dauzkate mila proiektu buruan, baina orain bada bat oso gertu dagoena; amets bat da. Espainia mailan dagoen moda-diseinu-argazkilaritzari buruzko aldizkari batekin harremanetan jartzea lortu dut, eta urtarilean Los Angelesera erreportari moduan bidaltzeko kontratatu naute. Kirol monitore lana mantendu nahiko nuke, ingelesa indartu eta erreportari bezala lan egin. Oso urduri nago, beldur askorekin, baina indarrez hasiko dut urtea. Izeko Mercek eman zidan aholku bat jarraitzen dut egunero: "Ametsetan sinistu eta amets horiek egi bilakatuko dira".



Argazkia: Aitor Saumell

Abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna

Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, Flashmoba antolatu dute Kuadrillategik eta Udalak elkarlanean. Flashmoba da ekintza antolatu bat non jende multzo txiki-handi bat leku publiko batean elkartzen den zerbait egiteko. Kasu honetan, Esne Beltza musika taldearen "Euskaraz bizi nahi dut" kantarekin dantza bat egiteko. Helburuak honakoak dira:

1.-Lehenik eta behin, abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna dela nolabait adieraztea.

2.-"Euskaraz bizi nahi dut" gizarteratzea.

3.-Ahalik eta herritar gehienen parte-hartzea lortzea.

Flashmobearen parte hartzeak entseguak azaroaren 23an eta 30ean egingo dira (arratsaldeko 19:30ean, Aldats pilotalekuan).

Flashmob herritarra abenduaren



1ean (larunbata) burutuko da, eguerdiko 13:00etan, Foruen plazan.

Entseguetara etortzerik ez daukanak koreografia internet bidez ikasteko aukera izango du, youtuben ("Debako flashmob herritarra" izenarekin) eta Udaletxeko web orrian zintzilikatuko den bideoaren bitartez.

Herriko kultur zein kirol elkarte guztiak ez ezik, herritarrak ere gonbidatuta daude ekimen honetan parte hartzera. Animatu!

Mintzalaguna egitasmoa, martxan

Mintzalaguna egitasmoa indartsu abiatu da aurten ere. Hasierako izen-emate kanpaina amaituta, ikasturte honetan hiruzpalau talde sortzeko asmoa dauka Zuhatza Euskara Elkarteak. Proiektuan parte hartzera animatu diren pertsonen orduategiak kontuan hartuta, mintzalagunen saioak honako orduategietan izango dira: astelehenera, 18:00etatik 19:00etara; asteazkenetan, 17:00etatik 18:00etara; eta ostegunetan, 19:00etatik 20:00etara. Dena den, ez da baztertzeko aurrerantzean talde berriren bat sortzeko aukera ere.

Dakizuenez, Mintzalagunak euskaraz jarriotasunez hitz egiteko zailtasunak dituztenei euskara praktikatzeko aukera eskaintzen die. Baina proiektuak aurrera egin dezan euskaldunen sostengua behar du, aurretik aipatutako saioak indartu ahal izateko. Laguntzaile baten inguruan elkartu ohi dira solaskideak, talde txikietan, giro lasaiean, herriko edozein txokotan eta gustuko edozer eginez mihia gure hizkuntzaz astintzeko. Finean, erabiliaren erabiliaz trebatzen garelako hizkuntzetan.

Lerro hauen bitartez, **euskara praktikatu nahi duten herritarrei dei egiten diegu egitasmoarekin bat egin dezaten.** Animatu eta hurbildu Zuhatza elkartera!

ZUBELTZU BERTSO-PAPER SARIKETA

Martxan da Zubeltzu bertso-paper sariketaren IV. edizioa. Beti bezala hiru maila bereizi dira sariketaren: 1) 2001ean jaiotakoak eta gazteagoak (60, 40 eta 30 euroko sariak); 2) 1997-2000n jaiotakoak (100, 60 eta 40 eurokoak); 3) 1996koak eta zaharragoak (250, 150 eta 100 eurokoak). Sariketa Debako eta Itziarko herritarrentzat antolatu ohi da eta bertsoek jatorrizkoak, argitaratu gabeak eta inon saritu gabeak izan beharko dute.

Oinarriak ohiko bideetatik zabalduko dira: eskoletan, liburutegi eta liburu-dendetan, Zuhatzan eta Andutz Biltokian eta zenbait denda eta tabernatan.

Lanak Debako Udaleko Euskara Zerbitzura edo Zuhatzara bidali ahalko dira, abenduaren 14rako. Sari banaketa, berriz, urtarrilaren 5ean egingo da, Zoro feri egunean, Udaletxeko Biltzar Aretoan.



ABIAN DA TENE MUJIKA BEKAREN VIII. DEIALDIA

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz, VIII. Tene Mujika beka sortu dute, 6.000 euroko diru-laguntza eman-gu duena.

Gure herriaren azken 60-70 urteetan izandako pertsona, talde, gertakari edo mugimenduren bati buruzko liburuak aurkez litezke (biografiak, kronikak, erreportajeak, elkarrizketak...); lanak jatorrizkoa eta euskaraz sortua izan beharko du, eta aurrez argitaratu nahiz saritu gabea.

Bekaren antolatzaileek azaldu dutenez, deialdia aurkezten diren proiektuak aztertzean, bi ezaugarri hartuko dira batez ere kontuan: testuaren beraren kalitatea eta gaiaren interesa.


Proiektuak 2012ko abenduaren 10era arte bidal daitezke, helbide honetara: artxiboa@deba.net. Gero, Alberto Barandiaranek, Idurre Eskisabelek eta Elixabete Garmendiak osatutako epaimahaiak, jasotako lan guztiak aztertu eta haien arteko bat izendatuko du irabazle 2013ko urtarrila amaitu baino lehen.

Debako Udalaren web-gunean (www.deba.net) kontsulta daitezke bekaren oinarriak.

Bertso afaria Uxue Alberdi eta Unai Iturriagarekin

Datorren azaroaren 23rako (ostirala) bertso afaria antolatu du Debako Udaleko Euskara Batzordeak Uxue Alberdi eta Unai Iturriagarekin.

Gaueko 21:30ean hasiko da afaria Arrano elkartearen. Aurretik, ordea, giroa berotze aldera, bertso poteoan ibiliko dira Itziarko bertso eskolako kideak. Haiekin erronda egin nahi dutenek, arratsaldeko 8etan dute zita plaza berriko arkupetan.



Agenda

Azaroak 24, larunbata

-13:00. Txistularien emanaldia, Santa Zezilia ospatzeko. Udaletxe azpian. Zortzi bat pieza eskainiko dituzte.

Azaroak 25, igandea

-12:00. Foruen plazan, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, elkarretaratzea egingo da. Udaleko Berdintasun Sailak antolatutako egitarau berezia aldizkari honetako 10. orrialdean duzue.

Azaroak 30, ostirala

-19:30. Azken ostirala. Preso eta iheslari politikoen aldeko mobilizazioa, Herrira mugimenduak deituta. Foruen plazan.

Abenduak 1, larunbata

-13:00. "Euskaraz bizi nahi dut" flashmob herritarra, Foruen plazan (informazio gehiago 17. orrialdean).

-17:00. "Euskaraz bizi nahi dut" lelopean, manifestazioa Donostian (Anoeta estadiotik). Kontseiluak antolatuta.

Abenduak 3, astelehena

-Euskararen Nazioarteko Eguna.

Abenduaren 6tik 9ra

-47. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka.

Lehiaketak

-IV. Animadeba Gortina Lehiaketa.

Debako Udalak IV. Gortina Lehiaketa jarri du martxan Animadeba 2013 animaziozko zinema jaialdirako. Lanak bidaltzeko epea abenduaren 14an amaitzen da, 14:00etan. Saria 700 eurokoa izango da.

Informazioa eta oinarriak: www.deba.net atarian.



-"Zubeltzu" IV. Bertso-Paper Sariketa, Debako Udalak eta Zuhatza Euskara Elkartek antolatuta.

Abenduaren 14a arte aurkeztu daitezke lanak, eta sari banake-

ta urtarrilaren 5ean egingo da, Udaletxeko Biltzar Aretoan.

Informazioa: aldizkari honetako 17. orrialdean, www.deba.net atarian edota Zuhatza elkartearen.

Bekak

-VIII. Tene Mujika Beka.

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako beka da, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko

asmoa duena. 6.000 euroko saria du arlo horretako proiekturik onenarentzat, eta argitaratzeko ziurtasuna. Informazioa: aldizkari honetako 17. orrialdean edo www.deba.net atarian.

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295

Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: TEL. 669 262 201
BURGOA ZUAZO: TEL. 667 338 890

22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat guardian.
09:00etatik 22:00etara, Debako botikak itxita dauden bitartean, aste osoan zehar, guardiako farmazia bat Deban edo Mutrikun.

Larunbat goizetan beti bat irekita:
9:30 - 13:30

OHARRA:
Gabeko farmazia zerbitzua Elgoibarrera Deba, Mendaro, Mutriku eta Sorluzeko zaintzako farmazia Elgoibarren zentralizatuko da aurren. Gipuzkoako Botiken Eskola Ofizialak hala eskatuta eta Eusko Jauriaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak aginduta egin da aldaketa. Horrela, gaueko 22:00etatik goizeko 9:00etara farmaziara jo behar dutenek Elgoibarrera joan beharko dute.




OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

MULTIÓPTICAS
Uzuri

ZURE

ENTZUMENA

ZAINTZEN



Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel./faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A
D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Edurne: 669 895 619

HONDARTZA, 2 - BEHEA
20820 DEBA (GIPUZKOA)
Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482
ase.deba@teleline.es

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com



ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



Sokagin, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel. 943 192 422
BOKATAK - PINTXOAK
ETA GIRO ONA

Informatika
Tresneria
informatikoa

JL


Elektronika
Osagai
elektronikak

Maxpe kalea, 7 - Behea
20820 DEBA
Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 98
Mugikorra: 688 938 601

e-mail: jl@informatikojelektronika.e.telefonica.net



Hondartza, 3-4 bajo • Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



IZENA EMATEKO:

Ikasturte osoan zehar (DOAN).
Dagoeneko hiru talde ditugu martxan,
ordutegi ezberdinetan.

INFORMAZIOA:

ZUHATZA EUSKARA ELKARTEA
IFAR KALEA, 12 BEHEA
943 19 13 83 (koordinatzailea@zuhatza.com)
UDALETXEKO HARRERA



Jarri zure publizitatea Berriketan aldizkarian!

Zuhatza
EUSKARA BIKAITIAK

943 191 383
berriketan@zuhatza.com